

Estás en: [diariovasco.com](#) > [Noticias Más Actualidad](#) > [Noticias Cultura](#) > **Hirietako mixeriak erretratatu ditu Goizalde Landabasok**

CULTURA

Hirietako mixeriak erretratatu ditu Goizalde Landabasok

05.07.11 - 02:03 - FELIX IBARGUTXI | DONOSTI A.

0 Comentarios |
  **Twittear** {2}
  **+1** {0}
  **Compartir**
 **Recomendar** {4}

 0 votos
 



Goizalde Landabasok (Deustua, 1970) 'Bränskint' plazaratu du, mikroipuinez osatutako liburua. Narrazioko lehenbiziko liburua du eta, atzoko aurkezpenean esan zuenez, «nahiko gogorra» atera zaio. Kontakizunetako pertsonaiak galtzaileak dira, eta egoera asko zorigaiztokoak dira; hala nola, bortxaketa, tratu txarrak eta droga menpekotasuna.

Liburua ez da, ordea, testu hutsekoa. Marrazki- liburua ere bada hau. Landabasok Aritz Eiguren marrazkilariarekin jardun du elkarlanean, eta honek era askotako ilustrazioak egin ditu, askotarikoak estiloz nahiz ikuspegiz.

Kazetaria da Goizalde Landabaso (Bilbo, 1970) eta batik bat irratietan egin izan du lan. 2000.ean plazaratu zuen lehenbiziko liburua, kazetaritzari buruzko kronika-liburua, 'Korte bat mesedez' zeritzana. Gero, 2005ean, 'Jat' olerki-bilduma publikatu zuen.

Bilboko Parte Zaharrean bizi da eta han ikusitakoak erabili izan ditu batzuetan istorioak sortzeko garaian. Baina idazleak ez du egin nahi izan bere inguru hurbilari buruzko libururik, baizik eta lan orokorrago bat. Gainera, beste bidaia batzuetan ikusitakoa ere erabili izan du tarteka, adibidez Istanbul eta Amsterdamgo eszenak.

Mikroipuin hauetako batzuk, irrati batean irakurri zituen Landabasok. Pieza laburrak izanik, idazleak lan handia hartu du testuak kimatzen. Areago: zenbaitetan olerki itxura hartu dute testuek.

Liburuko istorioak gogorrak dira, baina idazleak nahi zuen itxaropen-zirrikitu bat laga, eta lortu duelakoan dago. «Gainera, marrazkietako batzuk alaiak dira», esan zuen.

Landabasoren iritzirako, liburuko gai nagusietako bat hirietan paira-tzen den inkomunikazioa da: «Asko kostatzen zaigu besteengana hurbiltzea. Gurutzatzen gara jende askorekin eta ikusi ere ez ditugu egiten», esan zuen.

Bestalde, Mikel Soto editorea honela mintzatu zen atzokoan: «Formatu aldetik, euskal liburugintzak ez du aurrerapauso handirik eman azken urteotan, eta guk, gabezia horretaz ohartuta, pauso batzuk eman ditugu. Aukerak eman behar zaizkie sortzaileei. Iaz, Patxi Zubizarretaren 'Joan' atera genuen, paperezko liburuarekin batera DVD bat eskain-tzen zelarik, non Thomas Canet argazkilariak, Joserra Senperena musikariak eta Maddi Oihenart kantariak parte hartzen zuten. Aurrerapausoak eman behar ditugu euskal irakurleak erdal irakurketetara pasa ez daitezen, baina ez da erraza arlo desberdin horiek koordinatzea».



Idazlea eta liburua. Landabaso Donostiara etorri zen atzo. :: G. RIVAS